



IGEentzako LAGUNTZA
DOKUMENTUAK



NOLA
OSATZEN DA
IGE BAT

Nola osatzen da IGE bat?

Ikasleen Gurasoen Elkarte baten osaketa akta bidez egiten da; bertan, elkarteak sortzeko ikastetxebateko zenbait ikasleren guraso edo tutoreen asmoa jasota geratzen da elkarte horiek arautzen dituen araudian adierazitako helburuak betetzeko. Horretarako, beharrezkoa da ikastetxeko guraso guztiak batzarrera deitzea, eztabaidatu eta onesteko.

Ikasleen Guraso Elkarteek ondoko helburuak izango dituzte:

- Guraso edo tutore guztiei lagundu, euren seme-alaben heziketari dagokionez.
- Ikastetxeko hezkuntza jardueretan parte hartu.
- Gurasoen partehartzea sustatu, ikastetxearen kudeaketan.
- Ikasleen gurasoei lagundu, diru publikoak babesturiko ikastetxeen kontrol eta kudeaketan parte hartzeko duten eskubidean.
- Gurasoen ordezkaritza eta partehartzea erraztu, ikastetxe publiko eta kontzertatuetakoko eskola kontseiluetan eta beste organo kolegiatu batzuetan.
- Euren estatutuei dagokien beste edozein.

Ikasleen Guraso Elkarteak elkarteek beraiek egiten dituzten estatutu batzuek zuzentzen dituzte, eta gutxienez ondoko puntuak izan beharko dituzte:


- Elkartearen izena, osatu den ikastetxearen aipamenean bat izan beharko duena.
- Elkartearen helburuak.
- Helbidea, osatu den ikastetxekoa bertakoa izan daitekeena.
- Gobernu organoen osaketa eta funtzionamendua.
- Bazkideak onartzeko prozedura.
- Kideen eskubide eta beharrak.
- Fundazio ondarea eta aurreikusitako baliabide ekonomikoak.

1.- Deuseztatze erabakia, horren zergatiak adieraziz.

2.- Balantze ekonomikoa (jasotako dirulaguntzen justifikazioa) eta, estatutuen arabera, sobera dugun dirua zein irabazi asmorik gabeko elkarteri emateko erabakia, (baliteke beste elkarteren bati izatea, bertan sartzen bazarete, edo "Denon Eskola" Federazioari).

Beharrezkoa da Federazioari IGE baten deuseztatzea jakinaraztea?

- Bai, baldin eta federatuta bazaudete, bertan ere baja emateko. Kuoten ordainketa egunean daramazuen giaztatu.



II GE baten baja edo deuseztatzea

Gurasoen Elkarteen errolda idazpenak hiru motatakoak dira: izena ematekoak, osagarriak eta baja ematekoak.

:

- **IZENA EMATEKOAK.:**

IGEaren osaketa jasota utziko dute (aurreko ataletan aipaturikoa)

- **OSAGARRIAK:**

- a) Estatuak aldatzeko zuzendurikoak.
- b) Helbidea aldatzeko zuzendurikoak.
- c) Federakuntzetan (DENON ESKOLA) sartzeko zuzendurikoak.
- d) Nazioarteko izaera duten erakundeetan sartzeko zuzendurikoak.
- e) Zuzendaritza batzordeen kideak aldatzeko zuzendurikoak.

Puntu honen edozein aldaketa Elkartearen Erregistroari jakinaraziko zaio.

- **BAJA EMATEKOAK:**

Edozein elkarteren deuseztatzea eta horren zergatiak idatziko dira.

Zer da baja edo deuseztatzea jakinarazi baino lehen egin behar duguna?

- Estatuak irakurri. Ziurrenik bertan jasota egon da kasu horietan egin beharrekoa zer den.
- Bazkideei batzarrera deitu (Estatutuen arabera) eta ondoko erabakiak hartu.

Nola legeztatzen da IGE bat?

Behin Ikasleen Guraso Elkarteak sortu eta bere estatutuak onetsita, instantzia eskudunetan legeztatzea behar du. Elkartearen Erregistroan eman behar dugu izena; bakoitzean, dagokigun erregistro zenbakia jasoko dugu.

Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroa Áraban:
Dpto. de Justicia, Empleo y S. Social. G. Vasco
Donosita – San Sebastián 1
01010-VITORIA-GASTEIZ
Teléfono: 945-019156
e-mail: just-jurid-alava@ej-gv.es

IGE gisa erregistratzeko fundazio akta, estatutuak eta erregistroetan egindako eskariak behar ditugu.

Erregistroetan batzar nagusian aukeratu zuzendaritza batzordearen ziurtagiriak ere aurkeztu behar ditugu, hala nola bertan gertatzen den edozein aldaketa.



Komenigarria da Udalean erregistratzea, laguntzak, egotekotan, lortzeko aukera izateko.

Identifikazio fiskaleko kodea (IFK) ere eskatu behar dugu, Gipuzkoako Foru Ogasun Departamentuan.

Horretarako, Estatuak legeztatuta eta euren kopia bat aurkeztu behar dugu eta inprimaki bat bete behar

dugu. Agiri hori bankuan kontua irekitzeko hala nola dirulaguntzak eskatu eta justifikatzeko behar du.